# GORABIDE

Nº 306 Zk.
2022EKO APIRILA
ABRIL DE 2022

ADIMEN DESGAITASUNA | DISCAPACIDAD INTELECTUAL
BIZKAIA



INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

Laguntza produktuetarako zerbitzua
Servicio foral para productos de apoyo
pg. 4 or.



Senideen arteko topaketak
Encuentros de familiares
pg. 5 or.




60. urteurreneko jarduera gehiago
Más actividades del 60 aniversario
pg. 7 or.




# 2021 urteko balantzea eta 2022rako planak

# Balance del año 2021 y planes para 2022



## Gure zentroetako arreta hobetzen jarraitzen dugu, Osakidetzarekin lankidetzan

[6. or.]

## Seguimos mejorando la atención en nuestros centros, en colaboración con Osakidetza [pg. 6]


60RABIDE

ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA
ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
Licenciado Poza 14, 2 - 48011 Bilbao | Tel. 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
gorabide.com | facebook.com/gorabide | twitter.com/gorabide | youtube.com/gorabide | instagram.com/gorabide



Laguntzen du
Colabora
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# Balance de 2021 y planes para 2022

## Comenzamos el despliegue de nuestro quinto plan estratégico con un avance del 94%, un sobresfuerzo emocional y de gestión, y un importante impacto económico y social

**En su última reunión, las familias que conforman la junta directiva de nuestra asociación hicieron balance del año 2021 y debatieron sobre el plan de gestión previsto para 2022, como paso previo a someter ambas cuestiones a la votación de la próxima asamblea de socias y socios.**



Al evaluar el año 2021 –inicio de nuestro quinto plan estratégico que se extenderá hasta 2023–, hay que remarcar que volvió a estar condicionado por la pandemia. En ese sentido, destacan tanto el sobresfuerzo emocional y de gestión como el impacto económico y social producido en nuestra asociación. Por ello, continuamos agradeciendo el esfuerzo, el talante, la voluntad y la implicación de cada profesional en esta situación, lo que nos ha permitido mantener los niveles de calidad y calidez en la atención, y lograr que la pandemia afecte lo menos posible a la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias.

### Avance del 94%

El grado de avance del plan de gestión de 2021 fue del 94% de planes realizados o en curso, y alcanzamos el 60,7% de los objetivos previstos. En el plano económico, la gestión de los requerimientos derivados de la pandemia impactó negativamente en la situación financiera de nuestra asociación, pues supuso un gasto extraordinario de 530.610,01 euros. En el ámbito organizativo, se produjo el relevo en la gerencia y se inició un proceso de mejora en la estructura de gestión. Y, en lo operativo, se comenzó a recuperar cierta normalidad en las actividades de nuestros centros y servicios. Así, reactivamos las actividades deportivas en nuestra oferta de ocio, retomamos el despliegue de nuestra agenda de innovación y conseguimos mantener activo nuestro Plan de Participación en la Comunidad.

### Acompañamiento familiar

Con el Programa Contigo, ofrecimos casi 4.000 plazas de acompañamiento a nuestras familias. Además, pusimos en marcha la segunda edición del Programa Ongizate, con la Universidad de Deusto. Realizamos la novena encuesta de satisfacción de familias. Y analizamos, a través del Plan Emerge Plus, cómo son nuestras personas usuarias, para detectar qué tipo de apoyos precisan. En cuanto a sensibilización, nuestro Programa Goratu sobrepasó la cifra de 6.200 participantes y lanzamos una web para generar debate sobre las barreras psicosociales.

### Planes para 2022

En lo que respecta a la planificación de 2022, tenemos previsto desplegar 53 planes que respondan a los objetivos planteados en nuestro Plan Estratégico 2021-2023: iniciar una recuperación viable y sostenible, gestionar el impacto del covid-19, incrementar nuestro margen de acción social, fortalecer nuestra identidad como asociación, aumentar el valor añadido que aportamos a los servicios sociales que prestamos, contribuir a la transformación social, responder a las necesidades de las personas con discapacidad intelectual y sus familias, potenciar nuestro fortalecimiento asociativo y el empoderamiento de personas con discapacidad intelectual, fomentar a la alineación de profesionales con nuestro proyecto organizacional, compartir nuestro conocimiento e innovación, y asegurar los sistemas de gestión y el cumplimiento normativo.



En el año 2021,
conseguimos avanzar
en casi todos los planes.
También alcanzamos
más de la mitad
de nuestros objetivos.
Volvimos a perder dinero
por culpa del covid.
Y, para este año,
tenemos 53 planes.

# Iazko balantzea eta aurtengo planak

Gure bosgarren plan estrategikoa %94ko aurrerapenarekin, gainesfitzu emozionalarekin, kudeaketako gainahaleginarekin, eta eragin ekonomiko eta sozial handiarekin hasi dugu



2021 urtean, ia plan guztietan eman genituen aurrerapausoak. Gure helburuen erdia baino gehiago ere lortu genituen. Dirua galdu genuen berriro ere covidaren erruz. Eta, urte honetarako, 53 plan ditugu.

**Haien azkeneko bileran, gure elkarteko zuzendaritza batzordea osatzen duten familiek 2021. urteko balantzea egin zuten eta 2022rako aurreikusitako kudeaketa-plana eztabaidatu zuten, hori baita bi gaiak bazkideen hurrengo asanbladan bozkatu aurreko urratsa.**

2021eko ebaluazioari dagokionez –gure bosgarren plan estrategikoa hasi zen urtea da eta 2023ra arte iraungo du–, nabarmendu behar da pandemiak baldintzatu zuela berriro ere. Alde horretatik, alderdi emozionalaren eta kudeaketaren gehiegizko ahalegina eta gure erakundean izan duen eragin ekonomiko eta soziala nabarmentzen dira. Horregatik, profesional bakoitzaren ahalegina, jarrera, borondatea eta inplikazioa eskertzen jarraitzen dugu. Izan ere, horri esker kalitatezko maila eta arretaren berotasuna mantendu ahal izan ditugu, eta pandemiak adimen-urritasuna duten pertsonengan eta haien familiengan ahalik eta eragin txikiena izatea lortu dugu.

### % 94ko aurrerapena

2021eko kudeaketa-planaren aurrerapen maila egindako edo egiten ari ziren planen % 94koa izan zen, eta aurreikusitako helburuen % 60,7 bete genituen. Ekonomiari dagokionez, pandemiatik eratorritako eskakizunen kudeaketak eragin negatiboa izan zuen gure elkartearen finantza-egoeran, 530.610,01 euroko apartekо gastua izan baikenuen. Antolakuntzari dagokionez, gerentzian aldaketa izan zen eta kudeaketa-egitura hobetzeko prozesuari ekin genion. Eta jardueraren aldetik, gure zentro eta zerbitzuetako jardueretan normaltasun apur bat berreskuratu genuen. Hala, aisialdi-eskaintzaren barruan kirol-jarduerak berraktibatu genituen, gure berrikuntzako agendari berriz ekin genion eta Komunitatean Parte Hartzeko Plana aktibo mantentzea lortu genuen.

### Familientzako laguntza

Zurekin programarekin, gure familiei laguntzeko 4.000 plaza baino gehiago eskaini genituen. Gainera, Ongizate Programaren bigarren edizioa jarri genuen martxan, Deustuko Unibertsitatearekin. Familien gogobetetasunaren inguruko bederatzigarren inkesta egin genuen. Eta, Emerge Plus Planaren bitartez, gure erabiltzaileak nolakoak diren aztertu genuen, behar dituzten laguntza-motak hautemateko. Sentsibilizazioari dagokionez, gure Goratu Programak 6.200 partaide baino gehiago izan zituen eta muga psikosozialen inguruko eztabaida sortzeko webgunea sortu genuen.

### 2022rako planak

2022rako plangintzari dagokionez, gure 2021-2023 Plan Estrategikoko helburuak betetzeko 53 plan egitea aurreikusi dugu: susperraldi bideragarriari eta jasangarriari ekitea, covid-19aren eragina kudeatzea, gizarte-ekintzarako dugun tartea handitzea, elkarte gisa identitatea indartzea, eskaintzen ditugun gizarte-zerbitzuen balio-erantsia handitzea, eraldaketa sozialari ekarpena egitea, adimen-urritasuna duten pertsonen eta haien familien beharrei erantzutea, gure elkartearen sendotasuna eta adimen desgaitasuna duten pertsonen ahalduntzea sustatzea, profesionalek gure elkartearen proiektuarekin bat egin dezaten sustatzea, gure ezagutza eta berrikuntza partekatzea, eta kudeaketa-sistemak eta araudia betetzen dela bermatzea.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

## Gizatek: Servicio foral de orientación y subvención para productos de apoyo

Gizatek es un servicio público de la Diputación Foral de Bizkaia que orienta sobre los productos de apoyo y métodos tecnológicos (sillas de ruedas, grúas, audífonos, mobiliario, lentes, etc.) que puedan compensar o paliar las limitaciones que sufren las personas que tienen algún tipo de discapacidad o estén en situación de dependencia, así como facilitar la atención que presta la persona cuidadora, y que también gestiona subvenciones para su adquisición.

**Área de información, demostración y asesoramiento.** Existe un espacio público de exposición que puede ser visitado y, eventualmente, es posible probar e interactuar con los productos de apoyo.

**Área de orientación.** Es posible recibir asesoramiento sobre cualquier aspecto técnico que pueda servir para mejorar la autonomía personal de la persona solicitante, mediante la elaboración de un informe técnico de idoneidad. Puede acceder a esta área cualquier persona que tenga resolución administrativa de valoración de la dependencia en cualquier grado o de la certificación de discapacidad, como mínimo, de 33%.

**Área de gestión de subvenciones para la adquisición de productos de apoyo.** Para solicitar ayudas económicas destinadas a la adquisición de productos de apoyo, hay que reunir una serie de requisitos relacionados con certificado de discapacidad o dependencia; nacionalidad o residencia legal; empadronamiento; informe técnico de idoneidad; requisitos generales de la subvención y específicos del producto solicitado; y específicos para productos subvencionados por otros organismos. Se pueden presentar solicitudes hasta el 30 de diciembre de 2023, para productos de apoyo adquiridos entre los doce meses naturales anteriores a la fecha de presentación de la solicitud de subvención y los cuatro meses posteriores al día siguiente de la notificación de la Orden Foral de concesión.

**Para contactar con Gizatek:**
Teléfono: 94 406 6000
Web: labur.eus/cita-gizatek

## Laguntza produktuetarako orientazio eta diru-laguntza zerbitzua: Gizatek

Gizatek Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu publikoa da, eta ezintasunen bat duten edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonek jasaten dituzten mugak konpentsatu edo arin ditzaketen laguntza-produktuei eta metodo teknologikoei (gurpil-aulkiak, garabiak, audifonoak, altzariak, lenteak, etab.) buruzko orientazioa ematen du, eta zaintzaileak ematen duen arreta bideratzen du, eta horiek eskuratzeko dirulaguntzak ere kudeatzen ditu.

**Informazio, erakusketa eta aholkularitza arloa.** Badago erakusketarako espazio publiko bat, bistara daitekeena, eta, batzuetan, posible da laguntza-produktuak probatzea eta haiekin interaktuatzea.

**Orientazio-arloa.** Eskatzailearen autonomia pertsonala hobetzeko balio dezakeen edozein alderdi teknikori buruzko aholkularitza jaso daiteke, egokitasunari buruzko txosten tekniko bat eginez. Edozein gradutan mendekotasuna baloratzeko administrazio-ebazpena edo gutxienez %33ko desgaitasun-ziurtagiria duen edozein pertsona sar daiteke arlo honetan.

**Laguntza-produktuak erosteko dirulaguntzen kudeaketa-arloa.** Laguntza-produktuak erosteko dirulaguntzak eskatzeko, hainbat baldintza bete behar dira: desgaitasunaren edo mendekotasunaren ziurtagiria; nazionalitatea edo legezko bizilekua; errolda; egokitasunari buruzko txosten teknikoa; dirulaguntzaren betekizun orokorrak eta eskatutako produktuaren berariazkoak; eta berariazkoak beste erakunde batzuek diruz lagundutako produktuentzat. 2023ko abenduaren 30era arteko eskaerak aurkeztu ahal izango dira dirulaguntzaren eskaera aurkeztu aurreko hamabi hilabete naturalen eta dirulaguntza emateko foru-agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrerako lau hilabeteen artean erositako laguntza-produktuetarako.

**Gizatekekin kontaktatzeko:**
Telefonoa: 94 406 6000
Web: labur.eus/cita-gizatek

**Servicio
BBK SAIOA GORABIDE
Zerbitzua
Tel. 94 453 90 86**

# Programa Contigo: Encuentros de familiares

## Ofrecemos espacios para generar redes de apoyo naturales en el entorno próximo



Las familias de personas con discapacidad intelectual, generalmente, afrontan situaciones de mayor estrés y exigencia. Por eso, dentro de nuestro Programa Contigo, las acompañamos y les damos apoyo a través de diversas actividades. Entre ellas, los encuentros de familiares por localidades. Son reuniones dinamizadas por profesionales, con el objetivo de poder reflexionar sobre aspectos que influyen en la calidad de vida familiar, así como facilitar las relaciones y el apoyo mutuo con otras familias.

Surgidos a raíz de las restricciones de movilidad derivadas de la pandemia, estos encuentros facilitan la participación de las familias y generan una red de apoyos naturales en su entorno, al permitir contactar con otras familias vecinas y utilizar los recursos disponibles en su municipio.

**Expertas en apoyos**

Con estas actividades de participación asociativa, se pone de relieve la importancia de la familia como experta en apoyos y principal proveedora de ayuda constante. En grupos reducidos, surgen conversaciones y debates sobre clima familiar, apoyo emocional, bienestar, recursos y estrategias de afrontamiento, fortalezas... No son terapia ni un lugar donde se solucionen los problemas, sino un espacio para que las familias reflexionen y trabajen juntas. El objetivo final es aumentar su sentimiento de capacidad como proceso en la mejora de su calidad de vida familiar.

**Más información:**

- emmaballus@gorabide.com
- johannalopez@gorabide.com
- Teléfono 94 443 12 10

# Zurekin programa: Familiartekoen topaketak

## Inguru hurbilean laguntza-sare naturalak sortzeko guneak eskaintzen ditugu

Adimen desgaitasuna duten pertsonen familiek, oro har, estres eta exijentzia handiagoko egoerei aurre egiten diete. Horregatik, gure Zurekin Programaren barruan, lagundu egiten diegu eta hainbat jardueratan babesa ematen diegu. Besteak beste, familiartekoen arteko topaketak bideratzen ditugu, herrika. Profesionalek dinamizatutako bilerak dira, familia-bizitzaren kalitatean eragina duten alderdiei buruz hausnartzeko eta entitateko beste familia batzuekiko harremanak eta laguntza errazteko.

Pandemiaren ondoriozko mugikortasun-murrizketen ondorioz sortuak, topaketa horiek familien parte-hartzea errazten dute eta beren ingurunean laguntza naturalen sare bat sortzen dute, inguruko beste familia batzuekin harremanetan jartzeko eta udalerrian eskuragarri dauden baliabideak erabiltzeko aukera ematen dutelako.

**Laguntzan adituak**

Partaidetza asoziatiboko jarduera horiekin, familiaren garrantzia nabarmentzen da, laguntzako aditu gisa eta etengabeko laguntza-hornitzaile nagusi gisa. Talde txikietan, elkarrizketak eta eztabaidak sortzen dira familia-giroari, laguntza emozionalari, ongizateari, aurre egiteko baliabide eta estrategiei, indarrei eta abarri buruz. Ez dira terapia, ezta arazoak konpontzeko lekua ere, familiek gogoeta egin eta elkarrekin lan egiteko espazioa baizik. Azken helburua da beren gaitasun-sentimendua handitzea, familia-bizitzaren kalitatea hobetzeko prozesu gisa.

**Informazio gehiago:**

- emmaballus@gorabide.com
- johannalopez@gorabide.com
- 94 443 12 10 telefonoa

# Seguimos mejorando la atención en nuestros centros, en colaboración con Osakidetza

## Extendemos a las viviendas el convenio por el que realizamos un uso compartido y consentido de la historia clínica para optimizar la prestación de atención sanitaria

Desde el año 2017, mantenemos un convenio con Osakidetza, para facilitar que profesionales de medicina, enfermería y fisioterapia de ambas entidades puedan acceder a la historia clínica digital y a la prescripción electrónica de las personas que viven en nuestros centros residenciales. Esta iniciativa, que venía sirviendo para ofrecer una mejor coordinación de la información sociosanitaria a las personas usuarias de nuestras residencias, se amplía ahora a nuestras viviendas con apoyo.

En la práctica, este convenio contribuye a mejorar la atención a cada persona usuaria, al unificar su información social y sanitaria, lo que redunda en un efectivo conocimiento de todos los datos relevantes para determinar diagnósticos y tratamientos.

**Protección de datos**

Todas las actuaciones que se efectúan dentro de esta colaboración quedan registradas y se realizan con todas las garantías de protección de datos, con consentimiento previo, expreso y por escrito, que puede revocarse, y cláusula de confidencialidad y deber de secreto ilimitada.

A través de este acuerdo, nos integramos en el mapa de recursos sociosanitarios que Osakidetza mantiene en colaboración con el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia:

- **labur.eus/mapa-sociosanitario**



# Gure zentroetako arreta hobetzen jarraitzen dugu, Osakidetzarekin lankidetzan

## Etxebizitzetara zabaltzen dugu historia klinikoaren erabilera partekatua eta baimendua egiteko hitzarmena, osasun-laguntzako prestazioa optimizatzeko

2017az geroztik Osakidetzarekin hitzarmen bat daukagu, bi erakundeetako medikuntzako, erizaintzako eta fisioterapiako profesionalek gure egoitza-zentroetan bizi diren pertsonen historia kliniko digitalera eta preskripzio elektronikora sartu ahal izan daitezen. Gure egoitzetako erabiltzaileei informazio soziosanitarioa hobeto koordinatzeko balio izan duen ekimen hau laguntzadun gure etxebizitzetara zabaltzen da orain.

Praktikan, hitzarmen honek erabiltzaile bakoitzaren arreta hobetzen laguntzen du, informazio soziala eta sanitarioa bateratuz, eta horrek diagnostikoak eta tratamenduak zehazteko garrantzitsuak diren datu guztien ezagutza eraginkorra ematen du.

**Datuen babesa**

Lankidetza honen barruan egiten diren jarduketa guztiak erregistratuta geratzen dira eta datuak babesteko berme guztiekin egiten dira, aldez aurreko, berariazko eta idatzizko baimenarekin, erreboka daitekeena, eta konfidentzialtasun-klausularekin eta sekretu-eginbehar mugagabearekin.

Akordio honen bidez, Osakidetzak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailarekin lankidetzan dituen baliabide soziosanitarioen mapan sartzen gara:

- **labur.eus/mapa-soziosanitarioa**




# Zozketa sare sozialetan eta marrazki-lehiaketa

Gure 60. urteurrena ospatzeko antolatzen ditugun ekintzen artean, 2022an ere 60 urte beteko dituzten pertsonei zuzendutako kanpaina bat sustatu dugu, Facebookera, Twitterera edo Instagramera argazki edo bideo bat igo dezaten "60 urte ditut, Gorabidek bezala" esaldiarekin eta #60RABIDE hastagarekin. Parte hartzen duten guztien artean, Cafés Baquék lagatako 10 produktu-sorta zozkatuko ditugu.

**Marrazki-lehiaketa**

Gainera, marrazki-lehiaketa bat ere antolatu dugu Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleentzat eta saria 122 marrazki-maletatxoa izango da. Epea irekita dago ekainaren 30era arte eta jasotako marrazkiak BBK Kuna eraikinean erakutsiko dira. Bizkaiko ikastetxe guztiak parte hartzera animatzen ditugu. Informazio gehiago, gure webgunean: gorabide.com/marrazki-lehiaketa.

# Sorteo en redes sociales y concurso de dibujo

Dentro de las acciones con las que vamos celebrando nuestro 60 aniversario, lanzamos una campaña dirigida a personas que también cumplan 60 años en 2022, para que suban una foto o un vídeo a Facebook, Twitter o Instagram con la frase "Tengo 60 años, como Gorabide" y el hastag #60RABIDE. Entre todas las que participen, sortearemos 10 lotes de productos cedidos por Cafés Baqué.

**Concurso de dibujo**

También hemos organizado un concurso de dibujo para alumnado del ciclo superior de Primaria, con un maletín de dibujo de 122 piezas como premio. El plazo está abierto hasta el 30 de junio, y los dibujos recibidos se expondrán en el edificio BBK Kuna. Animamos a participar a todos los colegios de Bizkaia. Más información, en nuestra web: gorabide.com/concurso-dibujo.

## LABURRAK BREVES

### Eragin Zientifikoa duen Ikerketa

Deustuko Unibertsitateko Turismo Sailarekin eta in2destination aholkularitza turistikoarekin Bizkaiko Foru Aldundiarentzat egin genuen hoteletako irisgarritasunaren inguruko azterlanak Eragin Zientifikoa eta Soziala duten Ikerketen UD-Santander Sarien accésit irabazi du.

### Investigación con Impacto Científico

El estudio de accesibilidad en hoteles que desarrollamos con el Departamento de Turismo de la Universidad de Deusto y la consultora turística in2destination para la Diputación Foral de Bizkaia ha ganado el accésit de los Premios UD-Santander de Investigación con Impacto Científico y Social.

### Posta elektronikoa eta mugikor zenbakia

Familientzako komunikazio interesgarriak erraztu eta bizkortzeko, gure BBK SAIOA GORABIDE zerbitzuak posta elektronikoko helbidea eta mugikor zenbakia emateko eskatu nahi die. Idatzi helbide honetara: administracionsaioa@gorabide.com edo 94 453 90 86 telefonora deitu dezakezue.

### Correo electrónico y número de móvil

Para agilizar y facilitar comunicaciones de interés para las familias, nuestro servicio BBK SAIOA GORABIDE solicita que proporcionen sus direcciones de correo electrónico y sus números de móvil, escribiendo un correo a administracionsaioa@gorabide.com o llamando al teléfono 94 453 90 86.

GORABIDE

ABRIL DE 2022 | Nº 306 Zk | 2022EKO APIRILA

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).




**Radio Bilbaok bere Bikaintasunaren Sarietako bat eman digu 'Inpaktu Soziala' kategorian, gure "60 urtetan zehar egindako lan nekaezinagatik".**

**Radio Bilbao nos ha concedido uno de sus Premios a la Excelencia, en la categoría 'Impacto social', por nuestro "trabajo incansable a lo largo de 60 años".**

# PARTAIDETZA ASOZIATIBOA

Apirilan, gure **Zurekin Programa** barruan, webinar bat eskainiko dugu hilaren 7an interneteko eta sare sozialetako arriskuen prebentzioaren inguruan, eta beste bat hilaren 28an, elikadura eta osasunaren inguruan. Gainera, Kafeak Kide Artean izango ditugu anai-arreben eta koinatuen taldeekin; pertsona helduen gurasoen taldeekin; eta gazteen gurasoen taldeekin. Gainera, Atyla eskolabelaontzira bisita egingo dugu 9an, larunbatean, Ondo Pasa Familian programan. Eta Deustuko Unibertsitatearekin batera egiten dugun **Ongizate Programa**rekin eta **gizarte-eraldaketa**rako programekin jarraituko dugu.

**Informazio gehiago eta izen-emateak:**

Emma Ballús, partaidetza asoziatiboaren arduraduna
emmaballus@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

**AUTOGESTIO PROGRAMA**

- Martxoaren 21a, osteguna, 18:30etan.
- Martxoaren 27a, asteazkena, 18:00etan.

# PARTICIPACIÓN ASOCIATIVA

En abril, dentro de nuestro **Programa Contigo**, ofreceremos un webinario el día 7, sobre prevención de riesgos en internet y redes sociales, y otro el día 28, sobre alimentación y salud. Además, tendremos Cafés en Compañía de los grupos de hermanas, hermanos, cuñadas y cuñados; de madres y padres de personas adultas; y de madres y padres de jóvenes. También organizaremos una visita al velero-escuela Atyla, el sábado 9, con Diviértete en Familia. Y continuaremos con el despliegue del **Programa Ongizate** con la Universidad de Deusto, y de nuestros programas de **transformación social**.

**Más información e inscripciones:**

Emma Ballús, responsable de participación asociativa
emmaballus@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

**PROGRAMA DE AUTOGESTIÓN**

- Jueves 21 de marzo, a las 18:30.
- Miércoles 27 de marzo, a las 18:00.

D.L./L.G. BI-394-2014